

MADELEINE DE JAUREGUIBERRY (1885-1977)

Ziboze Sibasian sortürik 1885-eko Urrietaren 13-an, han berean zentü zaikü 1977-ko Urrietaren 20-an, 92-gerren urtean.

Etxekoak "Amerikaiñak" zütian, Eüskaldün hanitxek bezala. Berak errejentsagoa Parisen ikasi zian. Argentinan errejentsa egon zen urte zonbaitez. Gero Ziboze Sibasiala ützüli zen, amaren kantiala. Han bizi izan da gerotik.

Emazteen eüskalzaletzeko "Begiraleak" batarzüna antolatü zian beste zonbaitekin. Haren bürü izan zen. Hogeita-zonbait herritan andere segretariak izentatü zütian. Maleski, batarzünak ez zian irain, Donibane-Lohitzünen baizik.

Espainako gerla hasi zelarik, hego aldeko Eüskaldünen aldea hartü zian osoki. Mündiari ezagütarazi nahi üken zaion ez zirela ez, erraiten zen bezala, Rüsiari saldürik haraintiko gure haurrideak, baina beren libertatea ziela zaintzen. Hortarako bildü zütian denbora hartako idazle katoliko handienak: Bernanos, Mauriac, Maritain... Bere sailean ez dü sekülan etsitü geroztik.

Ber denboran, Eüskararen alde erauntsi dü tai gabe. Eüskara eskolan sar erazi nahi zian. Paueko inspektürrak eta Pariseko ministerioa hortara aholkatzen eta akülatzen zütian. Ele ederrak errekoltatü zütian, baina besterik ez!

Eüskal-Herrian, Emazteen Ekintza katolikoarekin ber gaiza agitü zaion.

Baina berak Eüskararen irakasten erauntsi dü herri eli batetan: hortarako libürüxka, diska eta eüskaldün komedia eijerrik antolatü ere baitü.

Eüskararen balioaz, beharraz eta egoeraz artikülü hanitx izkiribatü dü kazetetan eta bereziki hamabosteroko "Miroir de la Soule", Xiberoko Mirail delakoan.

Bi anaie eüskalzale bazütian: bata, Jean, barbera, "Basabürrian" libria izkiribatü ziana; bestea Clement: "Un peuple

pas comme les autres" idatzi zian horrek, bai eta "Etude synthétique du verbe souletin" izeneko lan bat, andereak agertü nahi ziana.

Bera ohorezko Eüskaltzaina günian, oso güti baitira holakoak.

Desertian oihüstatü diana izan da, lüzaz, Jondane Batis-ta bezala. Baina hunek, andere Madalenak, ez dü sekülan bü-ria galdü. Eta, balinba, azkenian entzünik date Xibero gaixo huntan. Bagünüke zerbaiten beharra!

J. L. Davant